AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

ENPLEGU ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA

2978

EBAZPENA, 2016ko ekainaren 17koa, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Zerbitzu Orokorren zuzendariarena, zeinaren bidez Pilar Vuelta Urarte andrea Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Enplegurako Prestakuntzako eta Diru-sarrerak Bermatzeko Zuzendaritzako goi-kargudunaren idazkariaren postutik kentzen baita.

Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 50.2 artikuluan xedatutakoarekin bat, eta lege horrek eta Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren estatutuek (maiatzaren 22ko 82/2012 Dekretuaren bidez onartu ziren) ematen dizkidaten eskumenez baliatuz, hau

XEDATZEN DUT:

Lehenengoa.– Pilar Vuelta Urarte andrea Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Enplegurako Prestakuntzako eta Diru-sarrerak Bermatzeko Zuzendaritzako goi-kargudunaren idazkariaren postutik kentzea (520010 kodea; 185 dotazioa), Administrazioan beste postu batera doalako. Eskerrak ematen dizkiot egin duen lanarengatik.

Bigarrena.– Kargugabetze horrek 2016ko ekainaren 20an izango ditu ondorio ekonomiko eta administratiboak.

Hirugarrena.– Ebazpen honek ez du administrazio-bidea agortzen, eta beronen aurka gora jotzeko errekurtsoa jarri ahal izango zaio Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiari, jakinarazpena egin eta hurrengo egunetik aurrera, hilabeteko epean, Herri Administrazioen Arau-bide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 114. eta 115. artikuluak betez.

Vitoria-Gasteiz, 2016ko ekainaren 17a.

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Zerbitzu Orokorren zuzendaria,
NESTOR ARANA ARABAOLAZA.